

FUNTSEZKO BAZKIDEAK

-Familiak:

Proiektua aurrera eramateko batez ere familien laguntza behar izango dugu. Senitartekoek animatu ahal dituztelako adineko pertsonak gure ekintzetan parte hartzen.

-Adin nagusiko pertsonen elkarteak:

Adin nagusiko elkarteak, esaterako "Centro de Jubs. y Pensionistas de Abando, Jubs.y Pens. Basurto "El Deporte", Asoc. de jubilados Begoña.." edo Bilboko kanpokoak. Haien bitartez nagusiekin harremanetan jarri ahal izango gara aplikazioaren aurkezpenak egiteko.

-Jarduera publiko/pribatuen informazioa:

Jarraitzeko, jarduera ezberdinen, publiko edo pribatuen informazioa behar izango dugu jarduerak prestatzerako orduan. Hau egin eskero, jarduera berriak prestatzerako orduan informazio gehiago izango dugu eta aukera gehiago jarduera berriak prestatzerako orduan. Beraz, aktibitatei dagokienez, barietate gehiago edukitzea lortuko dugu. Gainera, hobeto jakin ahal izango dugu zein zerbitzu erabiltzea jarduera edo aktibitateak egiterakoan.

-Eusko Jaurlaritza:

Gainera, Eusko Jaurlaritzaren laguntza izan dezakegula pentsatu dugu, hasiera batean Euskadiko nagusiei prestatuta dagoenez, ondorioztatu dugu diru-laguntza bat izan dezakegula proiektu hau aurrera eramateko. Horrela, jarduera ezberdin eta gehiago egin ahalgo ditugulako eta honela jende gehio animatuko da gure app-a deskargatzen.

-Aplikazioa:

Gure aplikazioa sortzeko, Googleko zerbitzuak erabiliko ditugu, posiblea delako app bat sortzea. Beste aukera bat izango litzateke "Good barber" edota moduko web orrialdeak erabiltzea aplikazio bat egiteko aukera ematen dutelako.

Aplikazioa eginda daukagunean, Apple Store-n eta Play Store-n jarriko dugu deskargatu ahal izateko.

-Ekintzak:

Aplikazioari dagokionez, ekintza ezberdinak egongo dira gure bezeroentzako eta bakoitzak bere leku aproposak edukiko ditu. Leku hauek aktibitateen araberakoak izango dira, beraz, aktibitate bakoitzak bere beharrak asetzen dituen lekuan izango da. Leku hau kalea, taberna bat edota mendian izan daiteke.

-Egokitzak:

Beste gauza garrantzitsu bat egokitzak dira. Aldez aurretik ekintzara doazenei eskatuko zaie haien beharrak eta egokitzak zeintzuk diren adieraztea. Honi esker ze ekintza egin dezaketen jakingo dugu eta ekintza horren esperientzia hobea izango da. Gainera, guztiek parte hartzea nahiko genuke, beraz, gauza errazak egiten saiatuko gara.

-BBKko fundazioa:

Amaitzeko, BBK-k fundazioak dirua eskeintzen du adineko pertsonekin aktibitateak egiten dituen enprekin. Beraz, saiatuko gara haien fundazioari laguntza eskatzen gure proiektuan laguntzeko.